



musikene



MUSIKENE I. NAZIOARTEKO LEHIAKETA GITARRISTA GAZTEENTZAT

2027KO OTSAILAREN 26AN
MUSIKENE - DONOSTIA

www.musikene.eus



MUSIKENE I. NAZIOARTEKO LEHIAKETA GITARRISTA GAZTEENTZAT

Donostia, Euskal Herria

2027ko otsailaren 26a

MUSIKENE I. NAZIOARTEKO LEHIAKETA GITARRISTA GAZTEENTZAT” ospatuko da Musikenen – Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia (Europa Plaza 2, Donostia).

Lehiaketaren helburua da gitarraren gazte-talentua nazioartean sustatzea eta hurrengo belaunaldiaren garapen artistikoa bultzatzea, musika-gradu ofizial baterako sarbidea erraztuz.

Lehiaketa hau etorkizuneko talentua bultzatzeko plataforma gisa sortu da. Bikaintasun artistikoa aitortzeaz gain, ikasteko eta esperientzia eszenikoa garatzeko aukerak sortzen ditu. Horregatik, emandako sariak prestakuntza jasotzeko eta kontzertu-bira baten bidez jendaurrean aritzeko aukera ematen dute.

Lehiaketa MUSIKENeko I. GITARRA JARDUNALDIEN testuinguruan kokatzen da. Jardunaldi horietan Franz Halasz irakasle gonbidatuaren masterclassa (Municheko Hochschule für Musik-eko katedraduna, otsailaren 25ean eta 26an), ikasle eta irakasleen kontzertua (otsailaren 26an) eta ohiko Ate Irekien Jardunaldia (otsailaren 27an) izango dira.

1. PARTAIDETZA

Lehiaketa 14 eta 17 urte bitarteko edozein nazionalitatetako gitarrista bakarlariei zuzenduta dago.

2026ko abenduaren 31an betetako adina hartuko da kontuan.

Parte-hartzaile guztiek bakarlari gisa joko dute.

2. IZEN-EMATEKO PROZESUA

Izena emateko epea 2027ko urtarrilaren 15ean amaituko da (egun hori barne).

Eskabideak online aurkeztu beharko dira esteka honen bidez: **[Izena emateko formularioa](#)**

Eskatutako dokumentazioa:

- Izena emateko formularioa
- Izena emateko kuotaren ordainagiria



- Nortasun-agiriaren kopia (NANa edo pasaportea)
- Interpretatuko den errepertorioaren partiturak

Partiturak PDF formatuan bidali beharko dira. Obra guztiak interpretatuko diren ordena berean agertu beharko dira.

3. IZEN-EMATEKO KUOTA

Izena emateko kuota 70 €* izango da.

** I. GITARRA JARDUNALDIETAKO parte-hartze modalitateei dagokienez, lehiaketan izena emateko kuotaren gainera deskontuak eskainiko dira.*

Ordainketa banku-transferentzia baten bidez egin beharko da honako kontu honetan:

- Kontuaren titularra: FUND CENTRO SUP MUSICA P.V.
- IBAN: ES25 2095 0611 0410 6240 7878
- Ordainketaren kontzeptua / erreferentzia: Musikene Guitar Competition
- SWIFT/BIC (Nazioarteko transferentzietarako): BASKES2BXXX

Izena emateko kuota ez da inola ere itzuliko.

4. PARTAIDETZAREN BERRESPENA

Hautagaiek 2027ko urtarrilaren 31a baino lehen jasoko dute lehiaketan parte hartzeko onarpenaren baieztapena.

Parte-hartzaileen emanaldien ordena zozketa baten bidez erabakiko da. Zozketa lehiaketa hasi aurreko egunean egingo da.

Emandako egunean eta ordutegian aurkezten ez diren parte-hartzaileak deskalifikatu ahal izango dira.

5. ERREPERTORIOA

Lehiaketak fase bakarra izango du. Parte-hartzaileek hautu libreko programa bat aurkeztu beharko dute, eta programaren iraupena 15 eta 20 minutu bitartekoa izango da.

Programak gitarraren errepertorioko bi estilo esanguratsu izan beharko ditu, transkripzioak onartuko dira eta buruz edo partituraz interpretatu ahal izango dira.

Baldintza horiek ez betetzeak penalizazioak edo puntuazioa murriztea ekar dezake.

6. EPAIMAHAI A

Nazioarteko musikari ezagunek osatuko dute epaimahaia, gitarra-interpretazioan eta pedagogian esperientzia berezia dutenek, eta honako hauek hartuko dute parte:

- Franz Halasz, Nazioarteko kontzertista eta Municheko (Alemania) Hochschule für Musik-eko katedraduna.
- Frederik Munk, Nazioarteko kontzertista eta Aarhuseko Royal Music-eko katedraduna (Dinamarka).
- Marcos Socías, Nazioarteko kontzertista eta Musikeneko gitarra-irakaslea.

Epaimahaiaren erabakiak behin betikoak eta apelaezinak izango dira.

Epaimahaiak eskubide hauek izango ditu:

- Sari batzuk ez ematea.
- Ex aequo sariak ematea.

7. SARIAK

Talentuaren eta etorkizun profesionalaren arteko zubia. Hurrengo gitarra-jotzaileen belaunaldiak bere artea nazioartean proiektatzeko aukera:

LEHEN SARIA:

- **Kontzertu-bira bat**, gutxienez hiru kontzerturekin, gastu guztiak estalita, interprete gazteak publiko eta agertoki berrietara hurbilduz.
- **Goi-mailako ikasketak egiteko aukera**, Musikene - Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian lehen urtean ikasketak egiteko beka bat, matrikularen kostua ordaindu beharrik gabe.
- **Hobekuntza artistikoa eta teknikoa sustatzen duten ikastaro eta programa espezializatueta parte hartzeko aukera**. Musikene - Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiak doako beka bat eskainiko die irabazleari eta bere irakasleari, astebetek gitarrekin lotutako irakasgai hauetan parte hartzeko: instrumentu nagusia, ganberako edo taldeko musika, irakurketa, tablaturak, interpretazio historikoa, errepertorioaren bilakaera estilistikoa eta gitarra-interpretazioa, 2026-27 ikasturtean.
- **Doako parte-hartzea ikasle aktibo gisa** Franz Halasz irakaslearen masterclasean, I.GITARRA JARDUNALDIEN barruan.
- **D'Addario** harien aukeraketa

BIGARREN SARIA:

- **Hobekuntza artistikoa eta teknika sustatzen duten ikastaro eta programa espezializatueta parte hartzeko aukera.** Musikene - Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiak doako beka bat eskainiko die irabazleari eta bere irakasleari, astebetez gitarrarekin lotutako irakasgai hauetan parte hartzeko: instrumentu nagusia, ganberako edo taldeko musika, irakurketa, tablaturak, interpretazio historikoa, errepertorioaren bilakaera estilistikoa eta gitarraren pedagogia, 2026-27 ikasturtean.
- **Doako parte-hartzea ikasle aktibo gisa** Franz Halasz irakaslearen masterclasean, I.GITARRA JARDUNALDIEN barruan.
- **D'Addario** harien aukeraketa

Lehenengo bi saridunek garaikur bat jasoko dute eta lehiakide guztiek diplomak jasoko dituzte parte hartzeagatik.

8. IRUDI ETA HEDAPEN-ESKUBIDEAK

Lehiaketan parte hartzean, lehiakideek onartzen dute erakundeak honako eskubide hauek izatea:


- Audio eta bideo grabazioak egitea.
- Emanaldiak irratiz, telebistaz eta plataforma digitalen bidez zabaltzea.
- Grabazio horiek erreproduzitzea eta banatzea, sustapeneko edo artxiboko helburuekin. Erabilera horiengatik ez da konpentsazio ekonomikorik emango.

9. AZKEN XEDAPENAK

Lehiaketan parte hartzean, lehiakideek oinarri hauek onartzen dituzte.

Erakundeak oinarri hauetan beharrezko aldaketak egiteko eskubidea izango du, antolaketa arazoiek hala eskatzen dutenean.

Arau horien interpretazioarekin lotutako edozein eztabaida izanez gero, gaztelaniazko bertsioa izango da kontuan hartuko dena.



TARIFA BEREZIAK PARTE HARTZAILEENTZAKO OSTATUETAN



Jar zaitez gurekin harremanetan

